

EGIKARITZE LABURPENA HEZKUNTZA FORMALAREN EREMUAREN EBALUAZIOA

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
EUSKO JAURLARITZA

Ebaluazio-taldea:

Begoña ARIAS GARCÍA

Carmen PEREA GARCÍA

Alejandra BONI ARISTIZABAL

2016ko urtarrila



Dokumentu honetan, Euskadiko hezkuntzaren eremu formalaren inguruan egindako ebaluazioaren ondorio nagusiak aurkeztuko ditugu. Ebaluazioa Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak (GLEA) agindu zion Begoña Ariasek, Carmen Perek eta Alejandra Bonik osatutako ebaluazio-taldeari. 2015eko urritik 2016ko urtarrilera bitarte egin da.

Ebaluazio horren helburua (GLEAk ezarria) honako hau izan da: “Garapenerako Hezkuntza (GH) eskola-curriculumean txertatzea ahalbidetuko duten aukerak, testuinguru-elementuak, estrategiak eta tresnak identifikatzea”.

Horretarako, hiru hezkuntza-prozesu ebaluatzea proposatu du GLEAk: herritartasun globalaren inguruko hezkuntza, kulturarteko hezkuntza eta balio-hezkuntza. Hurrenez hurren, Oxfam-Intermon GGKEa, Alboan GGKEa eta Serso GGKEak zuzendutako partzuergoa lantzen ari dira prozesu horiek Euskadiko hainbat ikastetxetan.

Erabilitako **ebaluazio-ikuspegia interpretatibista-konstruktibista** izan da. Ikuspegi horren bidez, GGKEen hezkuntza-proposamenetan oinarrituta egiten diren jardunek garapenerako hezkuntzaren ikuspegia eskola-curriculumean txertatzen nola laguntzen duten azaltzeko eragile guztiek dituzten konstrukzioak aztertu, interpretatu eta konparatu nahi dira.

Horretarako, **programa-teoriaren** logikatik abiatuta planteatu da ebaluazioa, ikuspegi sistemikoarekin. Horrela, beraz, hezkuntza-arloko esku-hartzeen dimentsio guztien (testuingurua, egitura, jardunbideak eta emaitzak) arteko erlazio kausalak ezarriko dituen eta dimentsio bakoitzak besteetan duen eragina kontuan hartuta emaitza jakin batzuetara iristeko modua zehaztuko duen eredu teorikoa identifikatu edo berregin behar da.

Informazioa biltzeko, teknika kualitatiboak erabili dira:

- GGKEen hezkuntza-proposamenen, parte hartzen duten ikastetxeen dokumentazio estrategikoaren eta ebaluazioa egiteko bidezkoa den dokumentazioaren berrikuspen dokumentala;
- aztertu beharreko hezkuntza-proposamenak egin dituzten GGKEen arduradunei eta hezkuntza-proposamenak gauzatzen ari diren 6 ikastetxetako irakasleei, ikasleei, zuzendaritza-taldeari eta ikasleen Guraso Elkarteari sakonean egindako elkarrizketak: 10 elkarrizketa kulturarteko hezkuntzaren prozesuaren inguruan, 6 elkarrizketa balio-hezkuntzaren prozesuaren inguruan, eta beste 7 herritartasun globalaren inguruko hezkuntzaren prozesuaren inguruan;
- ebaluazioaren lehen emaitzen inguruko kontraste- eta gogoeta-taldea. Honako hauek dira taldea osatu dutenak: ebaluazioan parte hartu duten irakasleak, zuzendaritza-taldea eta GGKEetako arduradunak, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko ordezkaria, GLEAko ordezkaria eta Garapenerako Hezkuntzan aditua den pertsona bat.

Bildutako informazioa analisi-kategoria batzuetan antolatu da esku-hartzeen dimentsio bakoitzerako:

- testuingurua: krisi sozioekonomikoa, immigrazioa.
- egitura: hezkuntza-araudia, lankidetzaren araudia, ikastetxearen ikuskera, ikastetxearen hezkuntza-ikuspegia, ikastetxe mota eta hizkuntza-eredua, GGKEaren ikuskera, hezkuntza-proposamenaren ikuspegia, hezkuntza-proposamena ikastetxean, proposamenaren ezagutza, ikasleen profila, irakasleen/klaustroaren profila,

zuzendaritza-taldearen profila, familien eta ikasleen Guraso Elkartearen profila, ikastetxeko balibideak eta sareak.

- prozesuak edo jardunbideak: irakasleekin egin beharreko ekintzak, ikasleekin egin beharreko ekintzak, hezkuntza-komunitateko gainerakoei zuzendutako ekintzak, beste ekintza batzuk, irakasleen, ikasleen eta hezkuntza-komunitateko gainerakoen parte-hartzea, parte-hartzea beste ekintza batzuetan, koordinazioa, estrategia pedagogikoak eta ebaluazioa.
- emaitzak: herritartasun globalaren ezaugarriak –jakintza eta sentsibilizazioa, trebetasunak eta balioetan oinarritutako jarrerak–, egitura-aldaketak, hezkuntza-proposamenean gertatutako aldaketak, sinergiak eta jasangarritasuna.

Analisi horretan oinarrituta atera da ondorio eta gomendioen oinarri diren ebaluazioaren aurkikuntza nagusiei lotutako informazio garrantzitsua.

ONDORIO NAGUSIAK

Testuinguruaren eragina

Krisi ekonomikoak eta immigrazioak bi aurpegi eskaintzen dituzte garapenerako hezkuntzaren inguruko lana ikastetxeetan txertatzeko garaian. Ildo horretan, bi faktore horiek aukera gisa ikus daitezke, baina zailtasun gisa ere bai, elementu horiek ikastetxeetan duten eraginaren arabera.

Eskola inklusibo bat ikasle etorkinen kudeaketara mugatzen ez dela eta hizkuntza-ereduak euskal kulturen integrazteko funtsezko elementu izan behar duela ulertzen da. Horretarako, ikasleen jarraipen pertsonalizatua egin behar da, eta ikastetxeei integrazioa sendotzeko beharrezkoak diren balibideak eskaini behar zaizkie (harrera-planak, hizkuntza-errefortzuak eta abar).

Irakasleen eta zuzendaritza-taldearen profila

Ikastetxeetan eta/edo eskola-curriculumean garapenerako hezkuntzari lotutako gaiak txertatzeko ekimenak egiteko, funtsezkoa da irakasleek ildo horretan lan egiteko duten motibazioa eta prestasuna, beste irakasle batzuekiko koordinazioa eta zuzendaritza-taldearen babesa eta lidergoa.

Irakasleen prestakuntza-gabeziak, irakasleen arteko koordinaziorik ezak (biak denborarik ezaren eta motibazioa galdu izanaren ondoriozkoak) eta irakasleen errotazioak zaildu egiten dute GGKEen hezkuntza-proposamenak ikastetxeetan txertatzeko eta/edo jarraitzeko aukera.

Era berean, GGKEen proposamenean malgutasuna (irakasleek proposamen horiek hainbat jakintzagai, eduki, irakasgai eta abarretara egoki daitezkeela ikustea) oinarritzat da garapenerako hezkuntza lantzeko.

Garapenerako hezkuntza ikastetxeetan txertatzeko estrategiak

Irakasleentzat eta ikastetxearentzat funtsezkoa da garapenerako hezkuntza ikastetxean txertatzean **ERAKUNDEAREN AHOLKULARITZA, BABESA ETA PRESTASUNA** edukitzea (eta irakasleen sarearena ere bai, baldin badago). Irakasleei eskaini beharreko hurbiltasun eta laguntza hori behar bezalakoa ez denean, irakasleek zailtasun handiagoak izaten dituzte babesak aurkitzeko, eta, zenbaitetan, garapenerako hezkuntza txertatzeko motibazioa galtzen dute.

Hezkuntza-proposamenak sartzeko, motibatuta eta inplikaturik dauden **IRAKASLEAK** bilatzen dira, **ERAGILE** izan daitezkeen eta, aldi berean, beste irakasle batzuk inplika ditzaten.

GGKEek planteatutako estrategien artean, funtsezkoa da material didaktikoak **BATERA SORTU ETA/EDO EGOKITZEA** eta hezkuntza-proposamenak irakasleen eta ikasgelaren premietara egokitzea ahalbidetuko duten **ELKARLANERAKO GUNEAK** sortzea irakasleen, zuzendaritza-taldearen eta GGKEen artean.

Bestalde, oraindik konpondu gabeko beste kontu bat eskola-curriculumean garapenerako hezkuntza zeharkatzea da. Ohikoena garapenerako hezkuntzari lotutako gaiak **IRAKASGAI JAKIN BATETIK** lantzea da, baina badira gai horiek **PROIEKTUEN ARABERAKO LANETAN** txertatzeko esperientziak ere, eta zenbait irakasgai inplikatzen dira lan horietan.

Halaber, garapenerako hezkuntzari lotutako gaiak DBHko zikloetan eta Batxilergoan txertatzea zailagoa da, curriculumaren zorrotasun eta eskakizunaren eta irakasleen arteko koordinazioa Lehen Hezkuntzan baino zailagoa izatearen ondorioz, Lehen Hezkuntzan proiektu integralagoekin eta globalitatekin abiatuta lan egiten baita, lan hori garapenerako hezkuntzaren arloan Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan egiten dena bezain nabarmena ez bada ere.

ESKOLA-CURRICULUMETIK KANPOKO hezkuntza-proposamenek sustatzen dituzten **EKINTZAK** (hala nola boluntario taldeak edota kanpainak) funtsezko errefortzuak dira garapenerako hezkuntza ikastetxeetan lantzeko, errealitatearekiko zuzeneko kontaktua edukitzea ahalbidetzen baitiete ikasleei.

Bestalde, ikastetxeetan lan egiten duten gizarte-eragileen, hezkuntza-komunitatearen beraren eta Hezkuntza Sailaren artean **KOORDINAZIOARIK EZ DAGOELA** ikusi da, eta horrek eragin negatiboa du garapenerako hezkuntza ikastetxeetan eta eskola-curriculumean txertatzeko garaian.

Metodologiaren zeregina garapenerako hezkuntza ikastetxeetan txertatzeko garaian

KOMPETENTZIEN ARABERAKO CURRICULUMA sartzeko aukera egokitzat hartzen da, eta ikastetxeetan hainbat metodologia lantzea ahalbidetzen ari da, hala nola **PROIEKTUEN ARABERAKO LANARI ETA LANKIDETZA-LANARI** lotutakoak. Hezkuntza-ikuspegi horiek bat datoz garapenerako hezkuntzari lotutako hezkuntza-proposamenek bultzatzen dituzten eta gogoetan eta parte-hartzean oinarrituta dauden metodologiekin.

Hezkuntza-proposamenen emaitzak

Garapenerako hezkuntzari lotutako gaien inguruko hezkuntza-proposamenak lantzean, ikasleak zein irakasleak **NEURRI HANDIAGOAN IREKITZEN DIRA ERREALITERA**, beste errealitate batzuen jakitun dira, eta sentsibilizatuago daude errealitate horien inguruan.

Beste errealitate batzuetarako irekitasun handiago hori indartu egiten da kanpainetan egiten den lanarekin eta, batez ere, boluntariotza-proiektuen barruan, ikasleak elkartasuna eta inklusioa lantzen dituzten auzo edo hiriko elkarteetara joaten direnean.

Ikasleek, halaber, ordura arte agertu gabeko trebetasunak eta gaitasunak garatzen dituzte (hala nola **ENTZUTEKO, AUTOKRITIKA EGITEKO** eta talde-lanean jarduteko gaitasunak), eta gainerako pertsonen iritzia errespetatzen, partekatzen eta lankidetzan aritzen ikasten dute.

Halaber, **GIZARTEAN PROTAGONISTA ETA ERAGILE** direla eta beren ekintzek gainerakoentzat esanahia dutela senti dezaten sustatzen da.

Horrez gain, **LANKIDETZA-LANA** sortzen da irakasleengan, proposamenak ikasgelan txertatzeko moduari buruz eztabaidatu eta gogoeta egiteko guneak sortzen dira, eta, zenbaitetan, hain inplikaturik ez dauden beste irakasle batzuk kutsatzen dira.

Garapenerako hezkuntzari lotutako proposamenak lantzearen ondorioz, irakasleen eta ikasleen arteko **INTERAKZIOA ALDATU** egiten da, eta irakasleek elkarriketa sustatu eta prozesu-bideratzaile gisa jarduten dute nagusiki. Irakasleak, halaber, sentikorragoak eta kontzienteagoak dira ikasleen premien aurrean.

Ikastetxeei dagokienez, esan daiteke, aniztasuna kontuan hartuta ere, **HEZKUNTZA-PROPOSAMENAK BERENGANATU** egiten dituztela eta, horren ondorioz, curriculumean edo urteko plangintzan txertatzen dituztela (irakasgaietan landu, edota ikastetxeko proiektuetan txertatzen dituzte).

GOMENDIOAK

Ebaluazioaren emaitzetatik, garapenerako hezkuntza ikastetxeetan txertatzea erraz dezaketen gomendio batzuk ondoriozta daitezke. Gomendio horiek prozesuetan esku hartzen duten agenteei zuzenduta daude.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarentzat

Gomendioak helburu eta irizpide garbiak izango dituen **HEZKUNTZA-POLITIKA BAT DISEINATZERA** eta politika hori **ZEHAZTEAN LIDERGOA AGERTZERA** bideratuta daude nagusiki. Horretarako, koordinazioa beharko da GLEAren eta beste agente batzuekin, hala nola GGKEekin, hezkuntza-komunitateko kideekin (irakasleekin, ikasleekin, familiekin eta zuzendaritza-taldearekin) eta beste gizarte-eragile batzuekin.

Era berean, premia espezifikoaren arabera, **BALIABIDE EGOKIAK ETA NAHIKOAK** eman behar zaizkie ikastetxeei eta irakasleei, era horretan garapenerako hezkuntzari lotutako gaietan eta metodologia berrietan presta daitezten, irakasleei prestakuntza horietan parte hartzeko orduak eskain dakizkien, ikastetxeetan irakasleen errotazioa murrizt dadin eta askotariko ikasleak integra daitezten.

Halaber, positibotzat hartzen da **IKASTETXEEI** curriculumuma antolatzeko eta ikasgelen egoerara egokitzeko (egitura, eskola-orduak, probak eta abar) **AUTONOMIA HANDIAGO** ahalbidetzea, eta curriculumean garapenerako hezkuntzari lotutako gaiak sartzeko, eta ikastetxeetan hezkuntza-metodologia berriak txertatzeko aukera bultzatzea.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarentzat

Gomendioak inplikaturako agente guztiekin adostutako **GARAPENERAKO HEZKUNTZAKO PLAN ESTRATEGIKO** bat bultzatzera, **GARAPENERAKO HEZKUNTZAKO DEIALDIAK** erakundeen errealitatera eta garapenerako hezkuntzako lanaren espezifikotasunera egokitzera eta **MALGUTZERA**, eta euskal erakundeek garapenerako hezkuntzaz duten ikuspegia hezkuntza-komunitatean **NEURRI HANDIAGOAN ZABALTZERA** zuzenduta daude funtsean.

GGKEentzat

Azpitarratu beharra dago **IRAKASLEEKIN BATERA HEZKUNTZA-PROPOSAMEN MALGUAK** eta eskola-curriculumeko irakasgai, gai eta edukietara egokitzeko modukoak lantzeak duen garrantzia, ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-errealitate espezifikoak kontuan hartuta.

Garrantzitsua da, halaber, alderdirik esperientzialena eta **HURBILEKO ERREALITATEAREKIN** loturarik handiena duena (eskola-curriculumaren ikuspegi global batetik) zein **FAMILIEK ETA GURASO ELKARTEEK** hezkuntza-proposamenetan duten **PARTE-HARTZEA** neurri handiagoan **INTEGRATZEA**.

Beharrezkoa da GGKEek **IKASTETXE PUBLIKOekin** eta **HAUR HEZKUNTZAKO ETA LEHEN HEZKUNTZAKO ZIKLOETAN** garapenerako hezkuntzan egindako lana neurri handiagoan **SUSTATZEA ETA/EDO BISTARATZEA**.

GGKEen funtzionamenduari dagokionez, erakunde horietako teknikariengan hezkuntza-metodologiengatik inguruko **PRESTAKUNTZA BULTZATZEA** eta ikastetxeetan beste GGKE batzuekin **ELKARLANERAKO GUNEAK** sortzea iradokitzen da.

Ikastetxeentzat (irakasleentzat eta zuzendaritza-taldeentzat)

Ikastetxeak ikasleekin harreman eta lan-eremu esperientzialagoak sortzeko **TOKI-INGURUNERA ETA GIZARTE-ERREALITATERA IREKITZEA** gomendatzen da.

Era berean, komenigarria izango litzateke, alde batetik, gai hauetan borondatez lan egin ohi duten **IRAKASLE INPLIKATUEK BETETZEN DUTEN ZEREGINA AITORTZEA** eta irakasleei garapenerako hezkuntzari lotutako hezkuntza-proposamenei buruzko gogoeta egiteko eta proposamen horiek landu eta ebaluatzeko aukera emango dieten guneak eta denborak gaitzea, eta, bestetik, **ZUZENDARITZA-TALDEEN LIDERGOA ETA KONPROMISOA SUSTATZEA**, garapenerako hezkuntzari lotutako proposamenak gara ditzaten.

Garapenerako hezkuntzari lotutako hezkuntza-proposamen horiek indartzeko, **KONPETENTZIEN ARABERAKO CURRICULUMA** eta **LANKIDETZA-METODOLOGIAK** neurri

handiagoan garatzea, curriculumean garapenerako hezkuntzari lotutako **CURRICULUMETIK KANPOKO EKINTZAK** txertatzea eta seme-alabek garapenerako hezkuntzari lotutako proposamenetan egiten duten lanaren bitartez **FAMILIAK TXERTATZEKO** aukera sustatzea iradokitzen da.

Ikasleen aniztasunari dagokionez, oinarritzkoa da gainerako ikasleekin integratzeko aukera emango duen **JARRAIPEN PERTSONALIZATU** bat egitea. Horretarako, ikastetxeek baliabide egokiak eta nahikoak behar dituzte (hizkuntza-errefortzuak, bizikidetza-planak, ikasle etorkinei harrera egiteko planak eta abar).

Azkenik, **IKASTETXE PUBLIKO ETA ITUNDUEN SAREEN** bitartez ikastetxeen arteko komunikazioa eta elkarlana bultzatzeak eta garapenerako hezkuntzan egiten diren jarduerak ikastetxetik kanpo neurri handiagoan **ZABALTZEAK** sendotu egingo luke ikastetxeetan gai horien inguruan egiten den lana.